

Iturritz, 11

FRANCISCAINS

AVENUE DE NAVARRE  
64120 SAINT PALAIS

Donapaleun, 1977-III-17

C. C. P.  
SUPERIEUR DES FRANCISCAINS BORDEAUX 931-56 D  
TEL. : (59) 59.71.37

Pierre Lafitte Jn.  
Petit Seminaire  
Saint François Xavier  
USTARITZ, 64.480

Agur, Jaun hori:

Frantziskotar bat nauzu ni, mugaz ber-  
tze aldekoa. Orai Donapaleun bizi naiz frantzis-  
kotarren komentuan.

Dela aste pare bat, Hego Euskal Herritik  
komisio edo enkargu bat jaso dut eskatuz ea ja-  
kiterik izango ote nukeen Iparralde honetan zoin  
herritan galdu den euskara, zoin herritan ez den  
euskara egiten (edo gal zorian dago zonbait herri-  
tan, eta hauek ere interesanteak lirake).


Guzti hau ikerketa soziologiko bat egite-  
ko dela uste dut.

Eskertuko nizuke biziki, beraz, euskara  
galdu duten herrien zerrenda lehenbailehen igo-  
rriko bazenidake. Hemengo fraileek erran dida-  
tenez, gauza hauek inork jakin baldin badaki,  
zu omen zara.

Zurearen itxaropenetan, beraz, esker  
ainitz, Izan ongi.

Begirunez,

A. Juan Joxe Iturrioz



FRANCISCAINS  
AVENUE DE NAVARRE  
64120 SAINT PALAIS

C. C. P.  
SUPERIEUR DES FRANCISCAINS BORDEAUX 931-36 D  
TEL. : (59) 58.71.37

Donapaleun, 77-7-10

Aita Piarres Laffitte  
Petit Séminaire  
Saint François Xavier  
64480 - USTARITZ

Agur, Jaun horri:

Ez dut zure erantzunik eta, martxoaren 17an zuzendu nizun eskutitza gogoratu nahi nizuke lerro hauen bidez.

Martxoko nere letra hartan zera galdegiten nizun: euskara galdu berri duten herrien izenak, hemen, Iparraldean noski. Bestaldean Erronkari eta Salazar alde~~ndia~~ bezala, nolabait adierazteko.

Euskaldun zonbait kontsultatu dudalarik, zureganako bidean jarri naute, zuk eman dezakezula horren berri hobekienik eta. Espero dut oraingoan bederen izanen dudala argitasunik eta informazio zabalik zuregandik.

Zurearen zain gelditzen naiz, beraz. Eta aurretik milesker. Izan ongi.

Aita Iturriz

